MUST +PRO 2027 TOPAGUNE PROFESIONALAREN PROGRAMAZIOAN PARTE HARTUKO DUTEN MUSIKA PROPOSAMENAK HAUTATZEKO DEIALDIA

Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak Must +PRO Euskal Herriko musika sektore profesionalaren topagunearen hirugarren edizioaren programazioan parte hartzeko musika proposamenak aurkezteko epea ireki du.

1/ Jardueraren xedea.

Must +PRO topaguneak katalizatzaile izan nahi du, partekatutako esperientzien eta ikaskuntzaren bidez Euskal Herriko musika-sektorearen hazkundea eta garapena sustatzeko testuinguru egokia sortuz, kalitatea eta lankidetza bultzatuta.

Horretarako, Must +PRO Euskal Herriko musika sektore profesionalaren urteroko topagunea gisa sendotu da. Bere programazioak hainbat showcase biltzen ditu, zuzeneko musikaren sektorea dinamizatzeko eta dagoen talentuari ikusgarritasuna emateko.

Hirugarren edizio honetan, Euskal Herriko hainbat artistak beren musika proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte topagunera bertaratzen direnen profesionalen eta publiko orokorraren aurrean, argitalpen-, sustapen-, ordezkaritza- edo kontratazio-akordioak sustatuz.

2/ Formatuak: Must +PRO Live eta Must +PRO Sarean.

Bi motako formatu egongo dira Must +PRO ekimenaren baitan: Must +PRO Live eta Must +PRO Sarean. Bi formatuek egitura, ordutegi eta publiko desberdinak dituzte.

Deialdira aurkezten diren artistak formatu batera edo bietara aurkeztu ahal izango dira. Hala ere, proposamen bera ezin izango da bi formatuetan parte hartzeko hautatu.

Ondorengo ataletan zehazten dira bi formatuen ezaugarriak.

2.1/ Must +PRO Live.

Must +PRO Live showcaseetan hautatutako proiektuek BASQUE.MUSIC. markapean parte hartuko dute. BASQUE.MUSIC. Euskal Herriko musika-sorkuntza eta industria nazioartekotzeko plataforma da; Eusko Jaurlaritzak, Etxepare Euskal Institutuak eta Musika Bulegoak lankidetzan garatutako ekimen publiko-pribatua.

Hautatutako musika proposamenek 30 minutuko zuzeneko aurkezpena egingo dute Must +PRO topagunera bertaratutako profesionalen eta publiko orokorraren aurrean.

Showcaseak arratsaldean egingo dira, eta soinu-probak aurreko orduetan egingo dira. Emanaldiaren arteko aldaketek ez dute 25 minutu baino gehiago iraungo.

Must +PRO Live-rako hautatutako musika-proposamen bakoitzak doako bi akreditazio profesional jasoko ditu. Akreditazio horiek modalitate honetan jasotako jardueretara sartzeko aukera emango dute, topaketaren parte-hartze baldintzen arabera.

2.1.1/ Baldintza ekonomikoak.

Hautatutako artistek ostatu-, mantenu-, eta joan-etorri-gastuak estaltzeko laguntza ekonomikoa jasoko dute, BASQUE.MUSIC.-ek ezarritako irizpideen arabera:

- Laguntzak emanaldian parte hartzen duten musikarien gastuak eta gehienez bi laguntzaileenak estaliko ditu. Azken horiek zuzeneko emanaldiarekin edo taldearen kudeaketarekin lotutako pertsonak izan beharko dute, hala nola managerrak, teknikariak (soinua, argiztapena edo backline-a), kontratazio-bulegoko langileak, diskoetxeko langileak edo road manager-ak.

- Ostatu- eta dieta-gastuen gehieneko zenbatekoa pertsonako eta eguneko honako hau izango da: hirurogeita hamabost (75) euro ostaturako eta berrogei (40) euro dietetarako.

- Dietak emanaldi artistikoa egingo den egunari eta, hala dagokionean, joan-etorrietarako egun gehigarri bati dagozkionak izango dira.

- Automobila erabiliz gero, kilometroko zero koma hogeita hamabost (0,35) euro ordainduko dira, autopista- eta aparkaleku-gastuez gain. Furgoneta erabiliz gero, kilometroko zero koma berrogeita bost (0,45) euro ordainduko dira, aipatutako gastuez gain. Kilometro kopurua kalkulatzeko, eta ibilgailu bat baino gehiago erabiltzen bada, abiapuntu bakarra hartuko da kontuan.

- Alokairuko ibilgailua erabiliz gero, alokairuaren, erregaiaren, autopistaren eta aparkalekuaren fakturak aurkeztu beharko dira.

- Hegazkina, trena edo bestelako garraio publikoa erabiliz gero, kategoria arrunteko txartelak soilik onartuko dira. Gastu horiek kalkulatzeko, abiapuntu bakarra hartuko da kontuan.

- Showcasean parte hartzeko hautatutako talde edo artista bakoitzeko eszenatokian arituko diren musikari bakoitzak eta gehienez bi laguntzaileek ehun eta berrogeita hamar (150) euro jasoko dituzte.

Taldeak edo artistak aurkezten dituen gastuetan, taldearen edo artistaren ordainsariari dagokion kontzeptuari soilik gehitu ahal izango zaio Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ). Gainerako gastuei ezin izango zaie BEZa gehitu.

Aukeratutako proposamenaren ordainketak faktura bidez egingo dira. Ordainketak showcase-ak burutu ostean parte hartzaileei BASQUE.MUSIC.-ek bidaliko dizkien galdetegiak erantzun ostean egingo dira.

2.1.2/ Eguna eta lekua.

Showcaseak martxoaren 17 eta 18an egingo dira, Gasteizko erreferentziazko hiru aretotan: Arkabia, Izaskun Arrue Kulturgunea eta Jimmy Jazz.

Jardunaldi bakoitzean 8 showcase egingo dira gehienez (guztira 16 gehienez), 19:00etatik 23:30era bitartean.

Hautatutako artisten banaketa eta emanaldi-ordena ekitaldia baino hilabete bat lehenago jakinaraziko dira.

2.1.3/ Nork har dezake parte?

Deialdia Euskal Herriko musikari profesional eta erdi-profesionalei zuzenduta dago.

- Errolda edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek parte hartu dezakete. Bere jarduera profesionala Euskal Herrian egiten duten musikariak izan behar dira.

- Zabaldu nahi den obra edo lanaren komunikazio-hitza euskara denean, errolda edo egoitza soziala euskararen eremu geografikoan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta

Euskal Hirigune Elkargoa) duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek.

2.1.4/ Aurkezteko baldintzak.

Deialdira aurkezten diren musika-proposamenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Gutxienez EP edo album bat argitaratuta izatea, eta gutxienez 30 minutuko musika originala izatea.
2. Barruko espazio eszenikoetara egokitutako musika-proposamena izatea.
3. 2027 urtean zehar zuzeneko emanaldiak eskaintzeko prestutasuna izatea.
4. Taldeko kide guztiak Gizarte Segurantzan alta emanda egotea, lanbide-jarduera musikaren eta/edo zuzeneko musika-emanaldien eremuari dagokion epigrafean.
5. Fakturatzeko gaitasuna izatea.
6. Izena emateko formularioa betetzea.

2.1.5/ Epaimahai profesionala eta hautaketa-irizpideak.

Musikaren sektorean adituak diren pertsonek osatutako eta Musika Bulegoak izendatutako epaimahai profesional batek hautatuko ditu Must +PRO Live '27 showcaseetan parte hartuko duten 16 musika-proposamenak.

Epaimahai profesionalak honako irizpide hauek baloratuko ditu:

1. Ikuskizun, album edo EP berrien estreinaldiak.
2. Artistaren nortasuna eta musika-ikuskizunaren originaltasuna.
3. Arrisku artistikoa eta artistaren edo taldearen ibilbidea.
4. Ordezkaritza-enpresaren sendotasuna.
5. Salmenta-potentziala eta bideragarritasun ekonomiko eta teknikoa.
6. Proiektuaren helburuen zehaztapena (zuzentzen zaien programatzaileak, lurralde-eremua, etab.) eta helburu horiek lortzeko Must +PRO topagunean parte hartzeak duen garrantzia.
7. Genero-berdintasuna eta adin-aniztasuna.
8. Euskal Herrian sortu, ekoitzi edo garatutako proposamenak.

Estilo eta genero musikal guztietako proposamenak aurkeztu ahal izango dira.

2.1.6/ Komunikazioa.

Showcase hauetan parte hartzeko hautatutako artistek edo taldeek BASQUE.MUSIC.-ek emandako komunikazio-materialak partekatu beharko dituzte beren sare sozialetan, eta BASQUE.MUSIC. aipatu beharko dute showcaseetan parte hartzearekin lotutako komunikazio guztietan. Era berean, Musika Bulegoa eta Etxepare Euskal Institutua aipatu eta etiketatu beharko dituzte beren argitalpenetan.

2.2/ Must +PRO Sarean

Antzokietako musika-programazioa eta kontratazioa sustatzeaz gain, ekimen honek Euskadiko Antzoki Sareko (SAREA) programatzaileen eta musikaren sektorearen arteko elkar-ezagutza sustatu nahi du.

Hautatutako 8 musika-proposamenek 10 minutuko zuzeneko aurkezpena egingo dute Must +PRO topagunera bertaratutako SAREAko programatzaileen aurrean. Zuzeneko emanaldiak dituzten aurkezpenak lehenetsiko dira. Horretarako, antolakuntzak oinarrizko soinu-ekipamendua jarriko du.

Aurkezpenak goizez egingo dira, eta proposamenen arteko aldaketek ez dute 5 minutu baino gehiago iraungo.

Aurkezpenen ondoren, ordubeteko networking-saioa egingo da. Taldeek eta artistek 5 minutuko bilera azkarrak egiteko aukera izango dute SAREAko programatzaileekin.

2.2.1/ Baldintza ekonomikoak.

Hautatutako musika-proposamenek ehun eta berrogeita hamar (150) euroko laguntza ekonomikoa jasoko dute Musika Bulegoaren eskutik, zergak barne hartu gabe.

2.2.2/ Eguna eta lekua.

Showcaseak 2027ko martxoaren 17an egingo dira, Gasteizko Europa Jauregian, goizeko 09:45etatik 13:30etara bitartean.

2.2.3/ Nori dago zuzenduta.

Barruko espazio eszenikoetan beren musika-proiektuak zuzenean aurkeztu nahi dituzten artistei.

2.2.4/ Aurkezteko baldintzak.

Deialdira aurkezten diren musika-proposamenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Barruko espazio eszenikoetara egokitutako proposamen musikala izatea.
2. 2027 urtean zehar zuzenekoak emateko prestutasuna izatea.
3. Izen emateko formularioa betetzea.

2.2.5/ Epaimahai profesionala eta hautaketa-irizpideak.

Musikaren sektorean adituak diren pertsonak osatutako epaimahai profesional batek, Musika Bulegoak aukeratuko dituenak, hautatuko ditu Must +PRO Sarean ‘27 showcaseetan parte hartuko duten 8 musika proposamenak.

Epaimahai profesional horrek honako kontzeptu hauek baloratuko ditu:

1. Ikuskizun, album edo EP estreinaldiak.
2. Artistaren nortasuna eta musika-ikuskizunaren originaltasuna.
3. Arrisku artistikoa eta artistaren edo bandaren ibilbidea.
4. Genero-berdintasuna eta adin-aniztasuna.
5. Euskal Herrian sortu, ekoitzi edo garatutako proposamenak
6. Musika Bulegoko bazkide izatea.

Honetaz gain, antzokien askotariko ezaugarriak kontuan izanda, alderdi hauen arteko oreka bilatuko da:

- Musika-estiloak.

- Behar teknikoak.
- Proposamen ekonomikoak.

Estilo eta genero musikal guztietako proposamenak aurkeztu ahal izango dira.

3/ Epeak.

Must +PRO Live ’27 eta Must +PRO Sarean ‘27 deialdietarako proposamenak aurkezteko epea abenduaren 11an amaituko da, 14:00etan. Egun eta ordu horretatik aurrera ez da proposamenik onartuko.

Must +PRO Live ’27 eta Must +PRO Sarean ‘27 showcasetan aurkezpena egiteko hautatutako musika proposamenak 2027ko urtarrilean zehar jakinaraziko dira.

4/ Informazioa eta kontsultak: proiektuak@musikabulegoa.eus